# Bestelako Xedapenak

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**2001**

AGINDUA, 2010eko otsailaren 25ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena; honen bidez, hasiera ematen zaio Urkiolako Parke Naturaleko Natura-baliabideak Antolatzeko Plana lehenengoz aldatzeko prozedurari.

Eusko Legebiltzarrak 2009ko irailaren 23an egin zuen osoko bilkuran, Zallobentako harrobiaren gaineko 8/2009 Legekoa ez den Proposamena onartu zuen. Proposamen horrekin, besteak beste, eskaera hauek egin zitzaizkion Eusko Jaurlaritzari: Zallobentako harrobiaren ustiapena handitzeko izapidea bertan behera uztea, parke naturalaren barruan meatzaritza-ustiapenak alde batera uztea eta harrobia osorik oneratu ahal izateko berreskurapen egitasmo bat lantzea.

Egun berean, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuran, beste erabaki bat ere hartu zen: Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzeko Legebiltzarreko popularren taldeak egindako lege-proposamena aintzat hartzea, babestutako naturaguneen mugen barruan meatzaritzako ustiapenak alde batera uzteko.

Ondoren, 2009ko urtarrilaren 13an, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuran premiazko eztabaidarako aurkeztutako legekoa ez den proposamena aurkeztu zuen Aralar Taldeak. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Urkiolako Parke Naturaleko Natura-baliabideak Antolatzeko Plana aldatzeko prozedurari berehala ekitea eskatu zion Eusko Jaurlaritzari. Aldaketa horretan sartuko da, sailak aurreikus ditzakeen beste puntu batzuen artean, NBAPko 5.2.7 atalean jasotako Zallobentako harrobiko ustiapenaren mugak Parke Naturalaren mugetatik kanpo geratzea.

Azkenik, 2010eko otsailaren 18an, aho batez onartu zuen Eusko Legebiltzarrak moldatutako zuzenketa, Aralar, Euskal Nazionalistak eta Euskal Sozialistak taldeek adostua: zuzenketa horren edukia, Urkiolako NBAPa eta Zallobenta harrobiaren kasuan, honako hau da, hitzez hitz:

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**2001**

ORDEN de 25 de febrero de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se inicia el procedimiento de primera modificación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola.

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 23 de septiembre de 2009, aprobó la Proposición no de Ley 8/2009, sobre la cantera de Zallobenta, conforme a la cual se insta al Gobierno Vasco, entre otras cosas, a suspender el trámite de ampliación de explotación de la cantera de Zallobenta, a excluir las explotaciones mineras en el interior del parque natural y a elaborar un proyecto de recuperación de la cantera que permita su regeneración integral.

El mismo día, el Pleno del Parlamento Vasco también adoptó el acuerdo de tomar en consideración la proposición de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco de modificación de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, en el sentido de excluir las explotaciones mineras dentro de los límites y zonas de afección de los espacios naturales protegidos.

Posteriormente, el Grupo Aralar presentó con fecha 13 de enero de 2009 la proposición no de ley para su debate urgente en el pleno del Parlamento Vasco, al objeto de instar al Gobierno Vasco a que el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca abordara inmediatamente el procedimiento de modificación del Plan de Ordenación de Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola, debiendo abarcar dicha modificación, entre otros puntos que pudiera prever el Departamento, que los límites de explotación de la cantera de Zallobenta contemplados en el apartado 5.2.7 del PORN quedarán fuera de los límites del Parque Natural.

Finalmente, con fecha 18 de febrero de 2010 el Parlamento Vasco aprobó por unanimidad la enmienda transaccional consensuada entre los grupos parlalmentarios Aralar, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, cuyo contenido, en lo que hace al PORN de Urkiola y a la cantera Zallobenta, es del tenor literal siguiente:

«1.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak berehala ekin behar dio Urkiolako Parke Naturaleko Natura-baliabideak Antolatzeko Plana aldatzeko prozedurari.

2.– Aldaketa horretan, sailak beharrezkotzat jotako atalez gain, beste hauek ere ezarriko dira: Parke Naturalaren mugen barruan Zallobentako harrobia ustiatzeko debekua, babesten diren ingurumen-balioekin bateraezinak diren erauzketa-jardueren debekua eta egun ustiatzen ez diren meatzaritza-guneak berreskuratzeko lanen definizioa».

Eusko Legebiltzarraren aurreko aginduetan helburu berri bat finkatzen da, eta NBAPa idaztean aintzat hartu zirenen gainetik dago. Helburu hori dosierrean dagoen 2010eko otsailaren 17ko ingurumen-txosten batek bermatzen du. Egungo araudiaz ateratzen den ondorioa hau da: «murritzegia dela habitat naturalen eta espezieen habitaten gaineko kalte edo aldaketei aurrea hartzeko, eta egungo espezieengan eragina duten aldaketei eta Urkiola GKL izendatzea eragin dutenei aurre egiteko; hori dela eta, murritzegia da goian aipatutako Habitaten Zuzentarauko 6.2 artikuluan ezarritako betebeharrak betetzeko». Horrek guztiak egiaztatzen du aldatu egin direla NBAPa onartzea ekarri zuten egoera eta irizpideak. Hori dela eta, Euskal Herriko Natura Zaintzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legeko (aurrerantzean, EHNZL) 5.2 artikuluan xedatzen dena betez, agiri hori aldatu edo/eta eguneratu egin behar da, eta, zehazki, Babestutako Naturagune horretan erabileraguneak zedarritu.

147/2002 Dekretuaren bidez onartu zen Urkiolako Parke Naturalaren NBAPan, une horretako baldintzengatik, Zallobentako harrobiaren mugak Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak (aurrerantzean, EKZP) zehaztea erabaki zen.

Legeak agintzen duena ikusita, eta ustiapen horren egoeraren gaineko ezagutza aldatu egin dela, garaia da NBAPak EKZParen gain utzitako erabaki hori planak bereganatzea, eta planak zedarritzea Babestutako Naturaguneko erauzketaguneak, EHNZLko 4.2.c artikuluari jarraiki. Ondoren, arau bereko 27.b artikuluaren arabera, EKZPak finkatuko ditu ekonomia-jarduerak antolatzeko arauak, NBAPak xedatzen dituen printzipioen arabera.

Eusko Legebiltzarraren agindua, parke naturalean meatzaritza-ustiapenak alde batera utzi eta harrobia osorik oneratzeko berreskurapen egitasmo bat lantze-

«1.– Que el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca aborde inmediatamente el procedimiento de modificación del Plan de Ordenación de Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola.

2.– Dicha modificación, además de los apartados que la consejería estime pertinentes, establecerá la prohibición de la explotación de la cantera de Zallobenta dentro de los límites del Parque Natural, la prohibición de las actividades extractivas que resulten incompatibles con los valores ambientales que se protegen, así como la definición de las labores de recuperación de los espacios mineros sin explotación en la actualidad».

Los anteriores mandatos del Parlamento Vasco señalan un nuevo objetivo que prevalece sobre los que en su día se consideraron a la hora de redactar el PORN. Dicho objetivo es avalado por el informe ambiental de fecha 17 de febrero de 2010, obrante en el expediente, que viene a concluir que la regulación actual «resulta insuficiente para prevenir el posible deterioro o las alteraciones sobre los hábitats naturales y de los hábitats de especies, así como las alteraciones que repercutan en las especies presentes y que hayan motivado la designación del LIC Urkiola, y por lo tanto, insuficientes para dar cumplimiento a las obligaciones contenidas en el arriba mencionado artículo 6.2 de la Directiva Hábitats», todo lo cual constata la variación de las circunstancias y criterios que determinaron la aprobación del PORN. Por ello, se da el supuesto previsto en el artículo 5.2 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco (en adelante, LCNPV) para proceder a la modificación y/o actualización de este documento y, en concreto, proceder a delimitar las zonificación de usos en el interior de este Espacio Natural Protegido.

Según se acordó en el PORN del Parque Natural de Urkiola, aprobado por Decreto 147/2002, el mismo se remitió, debido a las condiciones que ese momento se daban, al Plan Rector de Uso y Gestión (en adelante, PRUG), al objeto de que fuera éste quien determinara los límites de la cantera de Zallobenta.

A la vista del mandato legal, y de que el conocimiento de la situación de explotación en cuestión ha variado, es el momento de que el PORN avoque esa delegación realizada en su día al PRUG, y establezca la delimitación de las zonas extractivas en el Espacio Natural Protegido, de conformidad con el artículo 4.2.c) LCNPV, para que luego, según el artículo 27.b) de la misma norma, sea el PRUG quien establezca las normas de ordenación de las actividades económicas dentro de los principios que el PORN establezca.

El mandato del Parlamento Vasco, en lo referente al requerimiento relativo a la exclusión de las explotaciones mineras en el interior del parque natural y

ko eskaerari dagokionez, bat dator Natura Ondarea eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legearen oinarri diren printzipioekin. Lege horrek, funtsean, zaintzaren arloko legeria egungo jendarteak dituen kezka eta eskakizunetara moldatzen du.

Urkiolako Parke Naturaleko erauzketa-jardueren kasuan, 42/2007 Legearen oinarri izan ziren printzipioen muina honetan datza: naturaguneei edo/eta espezie basatiei eragin diezaieketen esku-hartzeetan zuhurtziaren printzipioa sartzea; eta natura-ondarea eta biodibertsitatea zaintzeko, era jasangarrian erabiltzeko, hobetzeko eta oneratzeko eskaerak arlokako politiketan sartzea.

2004ko abenduaren 7ko Erabakiaren bidez, Europako Batzordeak formalki onartu zuen, Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera, lurralde biogreografiko atlantikoko garrantzi komunitarioko lekuen zerrenda. Horien artean dago Urkiola izeneko ES2130009 Garrantzi Komunitarioko Lekua (aurrerantzean, GKL). Horrela, gune hori Natura 2000 Europako Ekologia Sarean sartzen da, eta Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauan ezarritako xedapenak ezar dakizkioke. Zuzentarau hori habitat naturalak eta fauna nahiz flora zaintzearen ingurukoa da (Habitaten Zuzentaraua), eta txertatuta dago estatuko lege-esparruan, Natura-ondarearen eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legean.

Urkiola GKL izendatuta, Habitaten Zuzentarauaren 6. artikuluan ezarritakoa bete behar da. 2. atalean, hau xedatzen da: «Batzordeko kide diren estatuek neurri aproposak hartuko dituzte, bereziki zaindu beharreko guneetan, habitat naturalak eta espezieen habitatak kaltetzea eragozteko eta guneak izendatzeko arrazoi izan diren espezieetan aldaketak eragitea saihesteko, aldaketa horiek zuzentarauaren helburuetan ondorio nabariak izan baditzakete». Agindu hori jasota dago, halaber, Natura-ondarea eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. artikuluan.

Hortaz, adierazitako azterketa teknikoan berretsitako eta Legebiltzarrean finkatutako helburuak lortu ahal izateko, Urkiolako NBAPa aldatzeko izapideei ekin behar zaie, Urkiolako Parke Naturalaren esparruan meatzaritzako ustiapenak eragozteko, lege-proposamenarekin bat. Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzen ari diren Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzeko lege-proposamena da.

Euskal Herriko Natura zaintzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legeko 5.2 artikuluaren arabera,

a la elaboración de un proyecto de recuperación de la cantera que permita su regeneración integral, es coherente con los principios inspiradores de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, que con carácter básico, adapta la legislación en materia de conservación a las preocupaciones y exigencias de la sociedad actual.

En relación con las actividades extractivas en el ámbito del Parque Natural de Urkiola, los principios inspiradores de la Ley 42/2007, se centran en la incorporación del principio de precaución en las intervenciones que puedan afectar a espacios naturales y/o especies silvestres; y en la integración de los requerimientos de la conservación, uso sostenible, mejora y restauración del patrimonio natural y la biodiversidad en las políticas sectoriales.

Mediante Decisión de 7 de diciembre de 2004 la Comisión Europea aprobó formalmente, de conformidad con la Directiva 92/43/CEE del Consejo, la lista de lugares de importancia comunitaria de la región biogeográfica atlántica, entre los que figura el Lugar de Importancia Comunitaria (en adelante LIC) ES2130009 denominado Urkiola, incluyendo así este espacio en la Red Ecológica europea Natura 2000 y resultándole de aplicación las disposiciones establecidas en la Directiva 92/43/CEE del Consejo de 21 de mayo de 1992 relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres (Directiva Hábitats), incorporada al marco jurídico estatal en la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

La designación de Urkiola como LIC supone que le resulte de aplicación lo dispuesto en el artículo 6 de la Directiva Hábitats, en cuyo apartado 2 se establece que «Los Estados miembros adoptarán las medidas apropiadas para evitar, en las zonas especiales de conservación, el deterioro de los hábitats naturales y de los hábitats de especies, así como las alteraciones que repercutan en las especies que hayan motivado la designación de las zonas, en la medida en que dichas alteraciones puedan tener un efecto apreciable en lo que respecta a los objetivos de la presente Directiva». Este precepto queda asimismo recogido en el artículo 45 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

Procede pues, al objeto de hacer posibles los objetivos dictados desde el Parlamento, corroborados en el informe ambiental indicado, dar inicio a los trámites para la modificación del PORN de Urkiola, con el objetivo de impedir las explotaciones mineras en el ámbito del Parque Natural de Urkiola, en consonancia con la Proposición de Ley modificación de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco que se está debatiendo en el Parlamento Vasco.

De acuerdo con el artículo 5.2 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza

Natura-baliabideak Antolatzeko Plana aldatu edo/eta betetzeko, plana onesteko erabilitako prozedura bera erabiliko da. Hori dela eta, lege bereko 9. artikulua betez, aldaketa hori hasi behar da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren Aginduaren bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Horrenbestez,

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Agindu honen bidez, Urkiolako Parke Naturaleko Natura-baliabideak Antolatzeko Plana aldatzeko prozedura hastea erabaki da, erauzketa-erabileren araubidea aldatu eta Babestutako Natura-gune horretan meatzaritzako ustiapenak eragozteko.

***2. artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko Natura zaintzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legeko 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Natura-baliabideak Antolatzeko Plana onartzeko prozedura hasita, ezingo da egin errealitate fisiko eta biologikoa nabarmen eraldatzen duen ekintzarik, plan horren helburuak lortzea ezinezko bihurtu edo asko zaildu dezakeenik.

Legearen berariazko aginduz, xedapen hori ezarri behar zaie natura-baliabideak antolatzeko planen aldaketei; beraz, ezingo da eman baimenik, lizentziarik edo emakidarik, Parke Naturaleko erauzketa-jarduerek kaltetutako guneetan errealitate fisiko eta biologikoa eraldatzeko ekintzak egiteko, plana kudeatzeko eskumena duen foru-organoaren aldeko txostenik gabe.

***3. artikulua.***– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Urkiolako Parke Naturaleko natura-baliabideak antolatzeko plana aldatzeko aurretiazko agiria idatziko du, eta Euskal Herriko Natura zaintzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legeko 7. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera egingo dira izapideak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 25a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

del País Vasco, para la modificación y/o actuación de un Plan de Ordenación de los Recursos Naturales se seguirá el mismo procedimiento previsto para su aprobación. Por ello, en virtud del artículo 9 del mismo cuerpo legal, procede iniciarse esta modificación mediante Orden de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, así como deberá ser publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

En su virtud,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Mediante la presente Orden se acuerda el inicio del procedimiento de modificación del Plan Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola para la modificación del régimen de usos extractivos, con el objetivo de impedir las explotaciones mineras en este Espacio Natural Protegido.

***Artículo 2.***– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, iniciado el procedimiento de aprobación de un Plan de Ordenación de los Recursos Naturales, no podrán realizarse actos que supongan una transformación sensible de la realidad física y biológica que pueda llegar a hacer imposible o dificultar de forma importante la consecución de los objetivos de dicho Plan.

Siendo tal previsión aplicable, por remisión legal expresa, a las modificaciones de los Planes de Ordenación de los Recursos Naturales, no podrá otorgarse ninguna autorización, licencia o concesión que habilite para la realización de actos de transformación de la realidad física o biológica en las zonas afectadas por actividades extractivas del Parque Natural sin informe favorable del órgano foral competente para la gestión del Plan.

***Artículo 3.***– Por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca se redactará un documento previo de modificación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de los Parque Natural de Urkiola que será objeto de tramitación de conformidad con el procedimiento establecido en el artículo 7 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 2010.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.